

## IRAKURTZEAREN PLAZERRA IRAKASKUNTZAN

Joxemari Iturralde

---

Literaturaren irakaskuntza (edo hobe esanda, Hizkuntza eta Literatura deitzen den asignaturarena) eta irakurtzearen plazerra praktikan esistitzen ez den matrimonio bat da edo gutxienez, oso gaizki konpontzen diren artean osaturikoa, elkartze hori behartua eta ia bortxatua izan delako Batxileratoan, eta are okerrago oraindik etxean bizitzen geratu den presentzia nekarazle, desatsegin eta problematiko horrekin, amaginarreba edo aitaginarrebarenarekin, hau da, hizkuntzaren irakaskuntza berarekin.

Arazoa berez handia eta larria bada ere, hemen, gure artean esanda, kezkarriagoa da oraindik hizkuntza hori euskera delako; hori dela-eta, esan beharrik ez dago, ikasleek arazo gehitu bati aurre egin behar izaten diote.

Arazoa hauxe litzateke bi hitzetan laburturik: irakurtzearen plazerra irakaskuntzan hilik datzala lurpean sarturik ia beti. Eta saiatu beharko litzateke gaur egungo hezkuntzan jasaten den problema hori nolabait konpontzen. Jakina, arazoaren konponketa ez da betebeharrak makala. Areago, esango nuke konponbide horrek iraultza osoa eskatzen duela irakaskuntzan. Dena baitago horren kontra eta ia inor, normalean, ez baitabil horren alde.

Hilik datzan edonork nola iratzar dezake beste hildako bat? Denak daude hilik edo, gutxienez, kamusturik, sentsibilitaterik gabe arazo horrekiko, bide bazterrean botata utzi diren enbor pusketak bailiren: irakasleak, Administrazioa, hezkuntza sistema guztia bere traba, oztopo, paper-nahaste eta burokraziarekin. Eta honen guztiaren ondorioz, noski, ikaslea dago, ikaslea dago itota, hil zorian, batere gogorik gabe, batere ilusiorik gabe.

Irakurtzearen plazerra ere kamusturik dago, edo ez dago, ez du esistitzen ere, ongi hilik baitago eta ederki lurperaturik Batxilergoan. Eta Batxilergoaren ondoren, ikasleak ikasketak amaitu eta gero ikastetxea utziko duenean, halaxe jarraituko du, berdin edota okerrago, bere bizi osoan.

Uztarketa hori da, beraz, lortu beharrekoa, hots, irakurtzearen plazerra eta ikaslearena hain zuzen. Banakako egin-

beharra, testuak aukeratuz, probatuz, hasiz, utziz, liburuak aldatuz, berriro ere aukeratuz, irakaslearen laguntza diskretu bezain etengabearekin. Eta horrela jarraituz pixkanaka ikasle bakoitzak bere bidea aukeratu nahian, irakurtzearen gustoarekin, gozamenarekin bat egin arte, amaierarik gabeko bilaketa plazeretsu batean...

Batuetan eginkizun honek bi ikasturte hartuko ditu, edo hiru, agian bat bakarra... edota akaso ez da inoiz erdietsiko,... Baina saiatu beharra dago dudarik gabe.

Euskeraz idazten duen idazle naizenez gero eta gainera urte askotan aritu den Institutoko irakasle, jakinaren gainean hitz egin dezaket irakaskuntzaren egoeraz eta bereziki "Euskal Hizkuntza eta Euskal Literatura" deitzen den asignatura horren egoeraz.

Egoera hori asko hobetu daiteke, ia lehen begiratu batean ikusten denez, oso txarra eta penagarria den kasuetan ezik, hauxe izan delarik orain arte normalizat jo izan dena, non ezer gutxi edota ezer ere ezin daitekeen egin... baldin ez bada dena iraultzen testuaren plazerra helburu orokortzat hartuz.

Badirudi betidanik izan dela irakaskuntzan ergelen hitzarmen moduko bat ikasleak inoiz ere ez dezan gozatu irakurtzearen plazerraz, testuaren disfrutatzeaz, irakurtzeak berez duen ondasunaz; badirudi lortu nahi izan dela ikaslea hildako bizikor bilakaturik, beste bat gehiago asko eta askoren artean, irten dadin batxilergotik.

Ikasleak hildako bizikorak ikasgelan, behartuak, gaur egun ere, lanak, kontrolak, ariketak, iruzkinak, azterketak entregatzera, Mio Cid-en edozein testu laudatuz, edota euskeraren kasuan, Axular-en edozein zati goraiatuz. Hemendik sortzen da, dudarik gabe, bere bizitza guztian eta betirako Literatura arbuatuko duen jendea, irakurtzearen plazerra zer den ere inoiz usaitu ere ez duena egin, gaixotzen hasten den jendea testu baten aurrean, edozein motibu delarik, jartzen den bakoitzeko.

Baina irakasle askok ez bide daki agian aspalditik eta askoren ahotan entzun izan den egia borobila. Alegia, irakur-

tzeak ez duela agindurik ametitzen, ez duela inolaz ere manurik onartzen nola ez duen ametitzen agindurik maitatzeak, edota amesteak...

Jakina, beti izanen da posible horretan ere saiatzea, Aurrera orduan: "Agintzen dizuet Calderón de la Barca-ri buruzko lana entrega diezadazuen, edota biharko Leizarragari buruzko iruzkina ekartzea atzerapenik gabe. Eta horretarako badakizue zer egin behar duzuen: —Irakurri! Irakurri! Irakurri!"

Eta ikasle gazteek beren lanak, beren iruzkinak entregatuko dituzte txintxo txintxo, nola edo hala eginak, biharamuneko asignatura aprobatu beharra dagoelako, kurtsoa gainditzeko; eta irakasleak biharamunean aurkituko du bere mahai gainean lan mordo bat, iruzkin piloan Calderón de la Barca-ren obrak laudatuz edota, euskal literaturaren kasuan, Leizarragaren testuen gorapena eginez, hau da, duela ehundaka urte bizi izandako apaiz batzuen lanen glorifikazioa ikasle gazte batzuek egindakoa.

Ederra modua irakurtzeari betirako gorrotoa izateko!

Dena dela denek entregatuko dituzte beren lanak baita irakurtzen ez dutenek ere. Azkarrenek, Daniel Pennac-ek esaten duen bezala, horretaz hitzegiten ikasiko dute, geuk bezalaxe. Horretarako iruzkinaren arte puzgarrian trebatuko dira dudarik gabe, hamar lerro irakurri hamar orrialde idazteko; edo jibaroen erara egindako fitxagintzan trebatuko dira, laurhun orrialde errekorritu gero bost orrialdetaraino gutxitzeko; aipamen zentzudunaren arrantzan trebatuko dira, arrakastaren merkataritza guztiek dauzkaten kultura izozturiko eskuliburuak; azterketa linealaren ziztailua erabiltzen ikasiko dute eta adituak bihurtuko dira "zati hautatuak" artean nabigatzen trebakuntza honek balioko dielarik segurtasun osoz batxilerratoa lortzeko, lizentziatura lortzeko, baita oposaketak gainditzeko ere ia... baina ez nahitanahiez liburua maitatzeko.

Eta horrela goaz pixkanaka Literaturari traizioa eginez, horrela goaz pixkanaka itotzen aurrena, gero hiltzen, irakurtzearen plazerra, ikasle gazteak hori zer izan daitekeen eza-gutu dezan ere ekidinez.

Georges Perros poetari eskeini zion biografian Jean-Marie Gibbalek esaldi hau aipatzen du, Perrosek irakasten zuten Rennes-eko neska ikasle izandako batena hain zuzen:

— "Bera (Perros) astearte goizetan iristen zen, haizeak eta hotzak tximaturiko ilaje harrotuaz bere motor urdin eta herdoilduan. Konkorturik, txaketo urdin ilun batez, pipa ahoan edo eskuan zeramararik. Liburuz beteriko boltsa bat hustutzen zuten mahai gainean. Eta bizitza zen hura guretzat".

Hamabost urte beranduago ikasle-ohi liluratuak liluraturik jarraitzen du kontatzen. Irrifarrea kafe kihararen gainetik erakutsiz, pentsatzen ari da, poliki poliki bere oroitzapenak bilduz, eta gero jarraitzen du:

— Bai, bizitza zen hura guretzat: tona erdi bat liburu, pipak, tabakoa, France-Soir edo L'Equipe-ko ale bat, giltzak, karnetak, fakturak, motor bujia bat... Nahaste-borraste honetatik liburu bat ateratzen zuten, begiratzen zigen, gogoa piztarazten zigen irrifarrea egin eta irakurtzen zuten bitartean, esku bat poltsikoan, bestea, liburua sostengatzen zuena, tinko sainar, irakurritz eskeini egingo baligu bezalaxe. Bere irakurketa guztiak opariak ziren guretzat. Ez zigen ezer eskatzen ordainean. Gure arteko norbaiten atentzioa laxatzen hasten bazen, segundu batez uzten zion irakurtzeari, lotiari begiratu eta txistu egiten zuten. Ez zen errieta, kontzientziara itzulera alaiak baizik. Ez gintuen begibistatik behin ere apartatzen, Irakurketaren sakonenean ere, lerroen gainetik begiratzen

zigen. Abotsa zuen ozena eta disdiratsua, pittin bat hereniletsua, getetako bolumena errazki betetzen zuena, nolaxe bete zezakeen anfiteatro bat, antzoki bat, Marteren zelaia, hitz bat bestea baino altuago inoiz ere entzuten ez zelarik. Instintiboki bereganatzen zituen espazioaren eta gure burmuinen neurriak. Liburu guztien erresonantzia-kaxa naturala zen, testuaren gizakundea, gizon bilakaturiko liburua. Bere abotsagatik ohartzeko ginen gu bapatean hura guztia geuretzat izan zela idatzia. Aurkikuntza hau iristen zen guregana amaigabeko eskolarizazio baten ondoren non Literaturaren irakaskuntzak mantendu baikintuen liburuetatik ez nolana hiko distantzia batera. Horrela beraz, beste irakasleek egiten zutenetik zer egiten zuten berak ezberdin? Deus ere ez. Zenbait arlotan gainera, besteek baino askoz gutxiago oraindik. Hauxe besterik ez, ez zigula literatura entregatzen tantakontagailu analitiko batean, dosis eskuzabaletan ematen zigen,.. Eta irakurtzen zigen guztia ulertzen genuen. Ulertu egiten genuen. Bere abotsaren doinua zen testuaren azalpen argitsuena, egilearen asmoa aurrezten zigunean, gibelasmua azaleratuz, aipamen bat desestaliz..., kontraesana baliogabetuz. Bere abotsaren zehaztasunak laborategi batera eramaten gintuen, bere ahoskatzearen argitasunak bizisekzio baterako gonbitea egiten zigularik. Eta aldeberean, ez zuen ezer esajeratzen eta, beraz, ez zuen Marivaux bat Saderen atalaurre bilakatzeko. Berdin zion, irakurketak irauten zuten bitartean, iruditzen zitzaigun Arlequin eta Silviaren burmuinen sekzioak aztertzen genituela, esperientzia honetan laborategiko laguntzaileak gu geu bagina bezalaxe.

Astean ordubeteko klasea ematen zigen, Ordubete horrek motxila bat zirudien: aldaketa osoa. Urtearen amaieran alde egin zuenean, erreposoa egin zuten: Shakespeare, Proust, Kafka, Vialatte, Strindberg, Kierkegaard, Molière, Beckett, Marivaux, Valéry, Huysmans, Rilke, Bataille, Gracq, Hardellet, Cervantes, Larios, Cioran, Chéjov, Henri Thomas, Butor... Batere ordenik gabe aipatzen ditut eta gainera izen asko ahazten zaizkit. Hamar urtetan, ez nuen entzuna hamarrrena ere!

Denetaz hitz egiten zigen, dena irakurtzen zigen, suposatzen baitzuen buruan biblioteca bat geneukala. Gradu zeroa zen fede txarrean. Gu ginen bezala hartzen gintuen, hots, batxiler inkulto batzuk baina jakitea merezi zutenak. Eta ezta hitzik ere patrimonio kulturalerantz, izarren ondoko sekretu sakratuetaz; bere kasuan, testuak ez ziren zerutik erortzen, lurretik jasotzen zituen eta guri ematen irakurtzeko. Gogoan dut oraindik gure dezepzio handia, hasieran, figura erraldoekin hasi zenean, ongi ezagutzen genituela uste genuen haiekin, dena dela, gure irakasleek ere esplikatu zikiguten haiekin: La Fontaine, Molière... Ordu baten ondoren, eskolajainkotasun estatutoa galdua zuten eta bihurtu zitzaizkigun kutun eta misteriotsu..., hau da, premiazko eta ezinbestekoak. Irakasle hark berpiztu egiten zituen idazleak. Zutitu hadi eta habil: Apollinairengandik hasi eta Zolarenaganaino, Brechtengandik Oscar Wildeganaino, denak etortzen ziren gure gelaraino, bizi-bizirik, Chez Michou parean zegoen kafe-tegiatik atera izan bailiren. Kafe hartatik bai, non batzuetan klasearen bigarren zatia eskeintzen baitzigen. Ez zuen, halere, irakasle-lagunminarena egiten gurekin, hori ez zen bere portaera edo estilos inondik ere. Soilik eta sinpleki bere "ezjakituriaren kurtsuaren" atzetik zebilen, berak zioen bezala. Berarekin, kulturak Estatuko erlijioa izateari uzten zion eta taberna bateko barra oholtza bat bezain katedra erakusgarria zen. Gu geu, hari entzutean, erlijiora sartzeko irrikitan jartzen ginen, jakituriaren jantzia jartzeko gogo biziz. Irakurtzeko gogo genuen, eta kitto... Isiltzen zen orduko Renneseko eta Quimpereko liburudendak hustutzera joaten ginen. Eta zenbat

eta gehiago irakurtzen genuen, gero eta ignoranteago sentitzen ginen, dudarik gabe, bakar bakarrik gure ignorantziaren hondartza gainean eta itsasoa aurrean genuelarik. Soilik, berarekin ez ginela, handik aurrera, bustitzeko beldur, Liburuetan murgiltzen ginen, denbora aferrik galdu gabe plusti-plasta hotzetan. Ez dakit gure artekin zenbatu egin ziren irakasle..., ez asko, dudarik gabe, eta agian lastima da, azken finean, zeren transmititzeko desio haundi bat utzi baitzigun nahi ez balu bezala. Baina lau haizetara transmititzekoa. Berak, irakaskuntzari farre egiten zionak, irrifarrez amets egiten zuen unibertsitate ibiltari batekin: "Eta pittin batez paseatuko bage-nu..., eta Goethe ikustera joango bagina Weimar-era, eta "Gau zuriak irentsiko bagenitu perspektiba Nevskin..."<sup>1</sup>.

Irakasle hark ez zuen jakintza bat sarrerazten, zekiena eskeini egiten zuen. Ez zen irakasle bat trobadore bat baino. Haren abotsa, trobadoreena bezalaxe, irakurtzen ez zekien entzulegoari zegoen zuzendua. Daniel Pennacek zioen moduan, jendearen begiak zabaldu egiten zituen. Eta... "garrantzitsuena zera zen, dena boz goraz irakurtzen zigula! Hasieratik gure ikasteko nahian ezartzen zuen konfidantza... Boz goraz irakurtzen duen pertsonak liburuaren maila berera igotzen gaitu. Irakurketaz bazkatzen du!

Kontu kontalari helduaren figura, boz goraz irakurritz, funtsezkoa da haurtzaroan. Eta baita ere gaztaroan oso garrantzitsua da, heldutasunera iritsiko den bitartean.

Carmen Martin Gaita idazleak, haurtzaroko arima miatuz eta geroko abentura literarioetan proiektatuz, bi haur moeta bereizten ditu. "Peter Pan haurrak eta "Robinson haurrak". Peter Pan haurrak hazi nahi ez dutenak dira eta Robinson haurrak, aldiz, familiako tradizioarekin era guztietako loturak lehenbailehen apurtu nahi dituztenak eta superbizipenerako bere ahalmenak modu independente batean saiatu nahi dituztenak. Bai kasu batean zein bestean, haurtzarotik heldutasunerako pasabidearekin erlazionaturiko kontsignak, beldurak eta promesak, printzipioz behintzat, helduen munduko iragazteak dira. Alde horretatik, azpimarratzekoa da haurrantzat kontu kontalari heldu baten presentzia fisikoaren garrantzia, zein bihurtzen baita (haur edo gazte beraren aurrean hartzen duen prestigio edo konfiantzagatik, edo, sinpleki esanda, benetako atentzio erakargarria tiratzeagatik) prozesu irudikor guztiaren arrakastaren gakoa.

Goethek esaten zuen hiru irakurle moeta ezberdin zeudela: bat, irakurtzean gozatzen duena irizpenik gabe; bi, gozatu gabe irizpena ematen duena; eta hiru, beste bien tartean dagoena, gozatzen irizpidea ematen duena eta irizpidea eman ez gozatzen duena. Amaitzen zuen Goethek esanez hirugarren irakurle hau zela benetan artelan bat bergauzatzen zuena, zerbait berri bilakatuz.

Goethe alemaniarra zen eta duela urte mordo bat bizi izan zen, beraz ez zuen ezagutzerik izan beste irakurle moeta berri bat, laugarrena hain zuzen. Eta irakurle moeta hau da Batxilergo ikastetxeetan ezagutzen dena: irakurle honek, irakurtzen badu eta irakurtzen duenean, ez du ez gozatzen ezta irizpenik ematen ere. Hauxe da, laugarren moeta hau, gehien ematen dena azkenaldi honetan.

Aipatzera nora orain Emilio Lladó irakasle ospetsuaren hitz batzuk. Lladó itzal haundiko katedraduna da Espainiako Unibertsitatean eta Alemaniako Unibertsitatean urte askotan irakasten aritu izan dena. Ezagutzen du, beraz, aski ongi eza-

gutu gainera, bi hezkuntza sistema arras ezberdinak: espainola eta alemaniarra. Esan beharrik ere ez dago, norbaitek oraindik jakingo ez balu, euskal hezkuntza sistema hezkuntza espainolaren kalko huts bat besterik ez dela. Honela dio, bada, Espainiako Akademiakide izendatu berri duten Lladó irakasleak:

– "Irakaskuntzak ez du inoiz nardatu behar gehiegizko informaziorekin, alderantziz, pentsatzen irakatsi behar du. Heildelberg-en estudiantzen nuenean harrituta geratu nintzen ikusteaz azterketak ez zirela egiten, han ez zegoela azterketarik. Eta badirudi hemen, alderantziz, horixe dela gure hezkuntza sistemaren lehenengo eta premiazkoen funtzioa: azterketak eta ikasi beharreko apunteak mordoka.

Orain Berlinen, berriro ere ikusi dut grina intelektuala, berez jakiteagatik amodioa, ikasi ikasteagatik apeta, hau guztia enbidia sortarazten duen organizazio batez lagundurik. Espainian asignaturen diktadura sufritzen dugu eta baita ikasketa planen diktadura ere, Hemen dena da traba pilos, oztopo mordoa eta inposaketa eskerga".

Laburtuz zera esan genezake, Emilio Lladó filosofoa tradizioen berrikuntzaren alde azaltzen dela Hezkuntzarako. Eta, begi bistakoa denez, tradizioen berrikuntza hori Batxilergoan ere egin beharra dago. Eta guztien oinarri den irakurtzearen plazerra, sinpleki bezain argi esanda, ez da esistitzen Batxilergoan. Erabat ezezaguna den zerbait da, dudarik gabe. Baina hori da, aldiz, lehen lehenik lortu beharreko helburua. Hori bai litzatekeela tradizioaren berrikuntza bat, are gehiago, hori bai litzatekeela benetako iraultza. Lehendik eza-gutu gabekoa gainera. Eta oraintxe da unea, hori lortzearen saiatzen hasteko garaia heldu da.

Eta ni orain, hemendik aurrera, irakasle baino gehiago idazle gisara hasiko naiz hizketan, gaur egungo gazteen artean arazo larri bat ikusten duen idazlearen gisan: gaurko gazteek ezer gutxi irakurtzen dutela eta ez dutela irakurtzearekin deus ere gozatzen, irakurtzen duten horretan. Horixe arazoa larria. Literatura orokorrean (eta are gehiago Literatura asignatura bat gehiago den neurrian) roilo aguantaezina egiten zaie ikasleei. Jasanezinezko zerbait, gai ezinaspergarriagoa, Eta ez luke inondik ere horrela izan behar.

Lerro hauek erreparatzen ari naizen bitartean, aste honetan bertan, hauxe irakurri dut aldizkari batean: kazetari bat idazle famatu bati ari zaio elkarrizketa egiten. Eta orain Estatu Batuetan bizi den idazle hori kekuka ari da idazle batzuen portaeraz eta bereziki idazleen artean egin ohi diren kongresuetaz. Eta galdetzen dio kazetariari:

— Kongresu horiek baino hobeak iruditzen al zaizkizu literatura irakasten duten unibertsitateak?

— Batzuetan joaten naiz zenbait unibertsitateetara eta aurkitzen dut badagoela bertan talde bat hogeitamar gaztek osatua, zeintzuk seihileko batez martirizatuak izan diren, sinboloak eta metaforak aurkitzera beharturik nire liburu batean non ni ez nintzen saiatu jartzen, non dagoen gauza bakarra historia bat den, besterik gabe. Saiatzen naiz haiei esaten ea zergatik ez diren irakurtzearen plazerrera errenditzen ni neroni idaztearen plazerrera errenditzen naizen bezalaxe, analisiak egin beharrean eta antzekotasunak aurkitzen saiatu beharrean eta influentziak miatzen ahalegindu ordez..."

Eta ez luke inondik ere horrela izan behar.

Beste arrazoi askoren artean Victor Morenok esaten duen bezala, irakurtzea delako gizakiari geratzen zaion askatasun ekintzetatik bakarrenetakoa. Baina hortik ere gutxi dago geletan. Askatasunetik, gozamenetik, plazerretik gutxi geletan.

1. D. PENNAC-ek bildua (*Como una novela*, Anagrama, Madrid, 1993, 86-89 orr.).

Gero, ikastetxea utzi ondoren, gaitzak, normalean, ez du sendabide errazik izaten. Eta hauxe da gelak utzi ondoren gertatzen zaien ideia argi, bakarrenetakoa: literatura behartua = (berdin) = asperdura jasangaitza. Literatura = (berdin) = roilo pairaezina. Ondorioa, beraz, argia da: ez dute inoiz gehiago ezer irakurriko.

Inolako ilusiorik gabeko ikasleak dira, benetan, batere irakurtzeko gogorik ez dutenak. Hildako bizikorreren antzekoak. Eta irakasleak? Nork irakasten dio irakasleari? Nork hezitzen ditu hezlariak? Nork berpiztuko du hildako bizikor bat? Nork sortaraziko dio eta nola ilusio hori, irakurtzeko ilusio hori, irakurtzearen plazer horri irakasleari?

Duela zenbait aste Institutotoko irakasle batek Espainiako egunkari batean idazten zuen:

— “LOGSEren aurrean irakasleagoak duen jarrera da aztertu beharko genukeena eta ikerketa sakon bat merezi duen zerbait. Orain errealtate bat besterik ez dugu azpimarratuko: irakasleagoaren desilusiona eta etsipena. Bakarrik “metairakasleagoa”, hau da, gelatik kanpoko lanetara dedikatzen diren irakasleak, eta metairakasleago horretan partaide izan nahi dutenak soilik daude ilusionaturik erreformarekin. Baldintza hauetan, posible ote da erreforma martxan jartzea?”

Bestelarik esanda, nola berpiztu liteke galduriko ilusio bat? Posible ote da hori?

Gaur egungo hezkuntza sisteman badago, dudarik gabe, gauza asko soberan eta beste hainbeste gutxienez faltan. Baina orain ukitzen ari garen arazoari buruz (irakurtzearen plazer ardatz nagusi gisa, jatorrizko muin gisa Literaturaren benetako ezagutza erdiesteko, hau delarik, guztien gainetik, testua, ez dezagun ahantzi) esan beharra dago helburua lortzeko oztoporik haundiena dela, paradoxikoki, honela deitzen den asignatura ofiziala: Hezkuntza eta Literatura, edota gure kasuan Euskal Hizkuntza eta Euskal Literatura. Asignaturaren erabateko fosilizazioa, bere gelditasuna da helburua lortuko duen bizisuria mugi dadin oztopatzen duen tumorea.

Gauza asko daude soberan. Eta sobera dauden gauzak alde batera utzi beharko ditugu jatorrizko muinera iritsi nahi badugu. Elemento asko, ideia ugari, alferrikako ohitura, gaizki erabilitako asmoak askotan lortu nahi den kontrakoa, hain juxtu, erdiesteko balio dutenak.

Lehenengo eta behin, kontu haundiz ibili behar baliagarritasun ideiarekin, ekoizkortasun kontzeptuarekin, hauen izenean egin izan eta egiten direlako hainbeste hankasartze, huts eta oker. Gazte batzuk lan bat egitera behartzea, obra batetaz idaztera oso “baliagarri” izan daiteke dudarik gabe baina hori ez da berez xedea. Xedea obra bera da, irakurtzearen plazer da. Baliagarritasunaren ideia, ekoizkortasunarena beti doa hezkuntzan izuarekin lotuta, beldurraren kontzeptuarekin kateaturik, dela notaren bidez, dela azterketaren bitartez, edota aprobatu zein suspentsoaren medioz. Literatura, irakurtzearen plazer, egia esanda, ondasuna da; bata bestearen atzetik ondorio onuragarri mordoa ekoizten du, baina “baliagarritasun” moeta honek ez du zer ikusirik lehen aipatu dugun “baliagarritasun” beste kontzeptuarekin, hauexa doalako, esan bezala, hertsiririk uztartuta izua eta honen ondorio kutsagarriekin: frustrazioa, etsipena, errepre-sioa, iruzurra, gezurra, apatia eta ilusio eza, etabar...

Literatura, irakurtzearen plazerak ez du zer ikusirik, esate baterako, testu azterketa edo testu iruzkinarekin, hots, bizisekzio entomologikoarekin, non tximeletari hegaltxoak txikitzen dizkiogun aurrena, hankatxoak gero, begiak segidan... Horrek ez du inoiz gehiago hegaltxo egingo.

Testuaren gozamina estutzen duen katearen izena honela deitzen da ofizialki, lehen esan bezala: Hizkuntza eta Literatura. Arestian aditzera eman bezala orain izan liteke une ezin egokiagoa kate hori apurtzeko eta irakurtzearen plazerak bere lekuan aurki dezan hezkuntzan. Garai batean matematika, fisika eta kimika batera estudiatzen baziren, gaur egun ez da horrela, dakigunez. Garai batean geografia eta historia batera estudiatzen baziren, gaur egun ez da horrela, dakigunez. Bada, modu berberan apurtu egin beharko genuke euskal hizkuntza eta euskal literatura estutzen dituen katea, biek bere aldetik eta batipat euskal literatura irakurtzearen plazerak libreki egin dezaten arnas. Horixe baita, azken finean, helburu nagusia: oxigeno pixkat edukitzea lasaiki arnas egiterik izateko, gozatzeko, disfrutatzeke, ez itotzeko, ez hiltzeko.

Hizkuntza eta literatura kateatze honen ondorioak begibistakoak dira, ez dago bestela ikasleengan lorturiko emaitzak kontutan hartzea besterik, eta bereziki emaitza horien ondorioak zenbait urte gerorago gazteak ikastetxea utzi ondoren adinoko pertsona edo, agian, pertsona heldua bilakaturikoan.

Asignatura berri baten sortzea proposatu beharko litzateke, asignatura berri bat konotazio positiboz betea, irakurtzearen gozamina deitu genezakeena. Izan liteke garai batean Urbanitatea deitzen zen asignatura modukoa, hots, erabat beharrezkoa nahiz eta jende askok uste izan baztertzekoa zela. Izan liteke gaur egungo Etika edo Erligioaren (hobe Erligioen Historia balitz) modukoa zeren, nahiz eta gaur egun ia beti gaizki enfokatu eta penagarri irakasten diren, ongi irakatsita ezin betegarriagoak baitira. Asignatura hori jartzea geletara haize freskoa ekartzea litzateke, behar beharrezkoa den oxigenazio ariketa klase artean.

Jakina, irakurtzea eta idaztea erabat banaturik joango lirateke. Nahiz eta askok uste duten irakurleak sortzeko aurrena idazleak sortu behar dutela eta irakurtzera daraman bide bakarra idaztetik pasatzen dela, kasu honetan behintzat, guztiz banaturik genituzke. Aipaturiko bide horrek balio dezake agian haurren kasuan, baina ez Batxilergoko ikasleentzako, hauek aski gogaiturik baitaude honez gero hainbat eta hainbeste idatzi beharrekin.

Lehentxeago esan dut gozamerako tarte bat izango litzatekela asignatura hori. Konotazio positibodun asignatura bat. Eta honek zera esan nahi du: ez azterketarik, ez lan nekosorik, ez kurtsoa gaingitu beharrik, ez selektibitatearik... Baztertu egin behar dira zepo eta harrapagailu horiek, erabateko nortasunaren osatzea oztopatu eta itotzen duten lakio horiek.

Soluziobidea ezin errazagoa da eta benetan iraultzailea hain delako simplea: irakurri, gustora irakurri inolako trabarik gabe, testu onak, gustokoak, norberari dagozkion liburuak, behar baldin bada etengabeki aldatzen joanez unean uneko egokienak aurkitu arte.

Rekord handi bat izango litzateke ikasturtearen amaieran ikasle bakoitzak disfrutatuko balu hamar, hamabi, hamabost bat liburu on irakurri ondoren. Oxigenazio ordu horietan irakasleak lortu beharko du irakurtzearen plazerak ikaslea harrapa dezan, ikasturte horretan eta elkarrekin egongo diren bizpahiru urtetan eta ikasketak utzi eta gero ere ikasleak irakurtzen jarraitu dezan bere kasa. Eta ez diezagutela erantzun behin batean ikasle-ohi batek esan zidana errepikatuz, alegia, esanez ez bada inoiz ezer irakurtzen ere ez dela deus gertatzen. Baina horretarako irakasleak behar du aurrena ilusionaturik egon. Irakasleak ez duelako irakurtzea exigitu behar, irakurtzeko bere gozamen propioa ikasleekin batera konpartitu egin behar duelako.

Egingo dugu, bai, topo oztopo eta traba gehiagorekin dudarik gabe. Bidean aurkituko baititugu eragozpen gisan ikasketa planak, burokrazia, lege araudiak, etabar. Gero eta traba haundiagoak zenbat eta gorago jotzen dugun. Nork sortaraziko dio ilusia goian agintzen dagoenari? Nola alda daitezke ikasketa-planak? Nola bazter daiteke enbarazo egiten dizuna? Zenbat eta gorago igo orduan eta okerrago, goi-goitikan ez baita ongi ikuskatzen, ez baita ongi antzematen honelako zehaztasunik, honelako arazorik. Goitik nekez ikusten dira ongi beheko arazoak. Eta goitik datorrena oso zaila izan ohi da behean aldatzea, ederki aski dakigun lez.

Sekretua eta arazoen konpontzea, beraz, gelan bertan talde on bat osatzean datza, irakasle eta ikasleen artean osaturikoa. Eta hortik aurrera martxan jartzea, ibiltzen hastea da dena, saiatuz beti ez txoke egiten ustegabeen halako oztopo burokratiko batekin, Literatura maite ez duen norbaitekin eta kontuz, asko baitaude.

Amaitu aurretik esan nahi nuke bereizi egin behar dela alde batetik, liburuaren gozamina, irakurtzearen plazerra eta bestetik, literaturarekiko zaletasuna. Esan behar da normalki bata bestearen atzetik etorri ohi dela baina ez direla gauza bera.

Esan behar, baita ere, posible dela gela batean ikasleekin irakurtzearen plazer hori lortzea, egin daitekeela eta egin ohi dela. Gainera, gaur egun zorionez badaudela euskal lite-

ratura liburu on asko eta asko, oso onak eta adin guztientzako direnak, bai bertako idazleek idatziak nola kanpoko idazle puntakoen lanei egindago itzulpenak. Alde horretatik gauzak izugarri hobetu dira orain dela hamairu urte, esate baterako, zegoen materialarekin gonparatuz.

Aipatu ditudan oztopoen artean bat azkenerako utzi dut. Eta hau da, hizkuntza berarena. Hots, ikasle askorentzat euskera bera baita arazoa. Gaur egun oraindik zenbait arlotan euskerak dena du kontrako gizartean eta baita, beraz, irakaskuntzan ere. Alde horretatik Euskera eta Euskal Literatura deituriko asignatura askoz okerrago dago, nik uste, Lengua y Literatura Española deituriko asignatura baino. Baina euskerearen egoera ikastetxeetan aztertzeke eta horretaz mintzateko beste hitzaldi bat beharko genuke eta ez dugu, beraz, gaur ukituko.

Eta amaitzeko hauxe esan behar: oraindik gaur egun jakintza guztiaren funtsa eta oinarria irakurtzean datza. Irakurtze honetan ez badugu gustorik hartzen, gazteek ez badute gustorik bilatzen, alfer-alferrik gabiltza beste edozein eginbeharretan. Irakurtzearen plazerra da ikastetxeetan lortu eta eman beharreko lehenengo pausua. Eta hau posible da eta egin daiteke.

Has gaitzen beraz gaur bertatik asmo horrekin lanean.

Literatura ez baitu inor inoiz etsipeneratzen.